

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 257/2016 Foru Agindua, urriaren 18koa, zeinaren bidez Gatzaga Buradongo herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa puntualari buruzko (UE-2 egikaritze unitatea) ingurumen txosten estrategikoa ematen baita**

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren eraginpean dago Gatzaga Buradongo (Bastida) herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa puntualaren (UE-2 egikaritze unitatea) izapidetzea. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Bastidako Udalak, aurtengo martxoaren 15ean, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailera jo du, aldaketa puntual horren ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedura izapidetzeari ekiteko helburuaz.

Ekainaren 22an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsonen kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz.

Ebazpen honen oinarri den ingurumenaren txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman du, 2016ko urriaren 14an.

1. Barne erreformako plan bereziaren aldaketaren ezaugarrien laburpen laburra. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.

Gatzaga Buradongo barne erreformako plan bereziak (BEPB) honako era honetan katalogatzen du "hiribilduko udaletxe zaharra" edo "Kontzeju etxea", herri horretako Jauregi plazaren albo batean 1914an eraikia.

BEPB katalogazioa: "Babesik gabe. Antolamenduz kanpo".

Esku hartze motak: "Eraispena".

Udalak aurkezten dituen Ingurumen Agiri Estrategikoan eta Hirigintza Agirian adierazten eta arrazoitzen denez, Gatzaga Buradonen eraikinak eraistean oinarritutako katalogazio eta esku hartze mota hori ez dator bat herriaren benetako beharrekina eta ez du oinarri sendorik arkitekturaren ikuspuntutik. Iritzi batean eraikina toki egoki batean dago, herriko plaza nagusiaren barruan; jendeak erabat onartuta du eta haizetik babesten du; izan ere, etxe hori gabe plaza eguraldi makurreko egunetan aldagoiaren mende geldituko litzateke.

Beraz, aldaketa puntual honen bidez proposatzen da UE-2 egikaritze unitatea ezereztea, eraikina babestu eta hari egungo lekuan eusteko. Dena den, eraitsi egingo da albo batean jatorrizko eraikinari sukalde izateko atxikitako erantsi bat, kontzeju etxetik eta jauregiaren fatxadatik bata beste ikustea izan dadin. Aurkeztutako agirien arabera, erantsi hori kentzeak indartu egiten du jauregiaren bolumetrikoa, hiribilduko sarreratik.

Era berean, bolatokia berreraikiz, jauregiaren aurreko plaza ingurua berreskuratzea planteatzen da. Bolatoki horrek fatxada plazara begira izango du eta hesitu egingo da.

Hiribilduko belaunaldi gorazarre egingo dien eskultura bat ere eraiki nahi da. Eskultura hori jauregiari erantsitako zati eraitsia egon zen lekuan jarriko litzateke.

Aldaketa horren ondorioz bi aukera daude: bata, egungo barne erreformako plan bereziari eustea eta, ondorioz, kontzeju etxea eraistea eta, bestea, plana aldatzea, baina aipatutako erai-kin horri eta hari alboan erantsitakoari eutsiz. Sustatzaileak komenigarri ikusten eta arrazoitu egiten du kontzeju etxea babestea baina hari erantsia (ipar-ekialdeko fatxadari atxikitako erai-kina) eraistea aurreikusten duen proposamena.

## 2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	
Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzeju Elkarte	
Bastidako Udala	
Gatzaga Buradongo Administrazio Batzarra	
Guardiako Kuadrilla	
SEO Bird Life	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

IHOBE SA Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak jakinarazten du BEPBko aldaketa puntualaren peko eremuan ez dela antzematen lurzorua kutsatu lezakeen jarduerarik izan denik. Era berean, eransten da kutsadura zantzurik agertuz gero, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaiola, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez.

Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean adierazten du proposatutako aldaketak ez duela arkeologia eraginik, bai, ordea, hura zuzitzen duen proiektuak, zeinak, egingo balitz, Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren aurretiko txostena beharko bailukeen. Proiektu hori ingurumen ebaluazioari eransten zaizkion agirietan deskribatutako eran egingo balitz, ezinbestekoa litzateke lurzoruan alde aurretik arkeologia indusketa bat egitea, zeren eta soto bat eraikitzea planteatzen baita, eta bermatu egin behar baita horrek ez diola eragingo harresiari.

Azkenik, zaldain bat eraikitzeari dagokionez, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazten du ez dela arrazoi historikorik halakorik jartzeko, zeren eta zaintza zaldaina Gatzaga Buradongo hesiaren adarbe gainean dokumentatzen baita, eta ez erdibidean dagoen hegal gisa, oholdza gisa, proiektuak proposatutako eran.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2003ko otsailaren 4ko dekretu bidez izendatu zuen monumentu multzo Gatzaga Buradongo herrigune historikoa. Beraz, arauzkoa

da Kultura Ondarearen Zerbitzuak aldaketari buruzko txostena egin dezan. Txosten hori egin da eta adierazi du proposatutako aldaketak ez diola kalterik egiten historia eta arkitektura ondareari. Dena den, gogorarazten da harresi inguruko esku hartzeetan kontuan izan beharko dela txostenean adierazitakoak; hortaz, zernahik jarduerak egokia izan beharko du hura zaintzeko eta ikusgai dena ere ez aldatzeko. Esku hartze horien ondorio diren jardueratan ere kontuan izan beharko da plazaren hobetu beharra, Monumentu multzoa babesteko Araubidean ezarritakoarekin bat etorriz.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, halaber, gehitzen du aldaketaren ondorio diren jarduerak Arabako Foru Aldundiaren Kultura (Arkeologia) Sailaren baimena behar dutela.

Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazten du egoki jotzen duela nola "Kontzeju etxea" zaharberritzeko asmoa hala eraikinaren iparraldeko fatxadari datxekion eranskina eraisteko asmoa, azken horrek hiri kultura balioa gutxitu egiten baitu. Dena den, harresi atalari iltzatutako beso bidez eusten den zurezko zaintza zaldaina egiteari dagokionez, adierazten da eragina izango zuela zaintza bereziaren mende dagoen gai batean, hala nola, harresian. Uste da ez dagoela jarduera hori egiterik, harresiari eragiten baitio eta hori ezinezkoa baita gaurko araudiarekin.

Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazten du, halaber, espedienteak zehaztu egin beharko duela plazaren hegoaldeko eraikinetarako aurreikusitako kokapena, egun UE-2ren muga barruan daudenena eta eraitsi nahi direnena, eragin argia baitu herriko bilgune nagusi den hiri agertokian.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak adierazten du berak ez duela alegaziorik BEPBren aldaketari aurkezteko.

3. Ebaluazio prozesuaren azterketa. Ingurumen eragin nagusiak. Natura 2000 Sareari eragina.

Aldaketa puntualaren sustatzaileak emandako agiriak aztertuta, ingurumen organo horren aburuz agiri horrek, oro har, behar adinako kalitatea dauka proposatzen den aldaketa puntualaren ingurumen ebaluazio estrategikoa gauzatzeko. Hala ere, planaren aldaketak eta, beraz, "Kontzeju etxeari" egungo lekuan eusteak, ez dakarkiete eragin nabarmenenik landarediari, habitatei, lurzoruari, azaleko edo lurpeko urari edo ekologia lotuneei.

Izan ditzakeen eragin aipagarrienak herri mailako paisaia eta historia, arkitektura eta kultura ondarean izango lituzke.

Paisaia eraginari dagokionez, adierazi behar da Gatzaga Buradongo herrian ez dagoela "Arabako lurralde historikoko paisaia bitxi edo bikain" kalifikatutako paisaiarik, Diputatuen Kontseiluaren 829/2005 Erabakiaren bidez onartutako katalogoaren arabera. Oso hurbil dago, ordea, katalogo horretan 53 zenbakia duenetik, Toloñoko mendilerrotik. Hala ere, kontzeju etxeari eusteak eta, beraz, Jauregi plaza mendebalderantz ez irekitzeak ez dakar kalterik, zeren eta, plaza horretatik eraikinerantz begiratuz gero, Haroko San Felicesko ahuntzarri edo ofita harrobirantz begiratzen baita eta ikuspegi hori eraikinaren atzeko aldetik ere ikusmiran baita. Sustatzaileak aurkezten dituen hirigintza txostenean eta ingurumen txostenean, ikuspegi eta paisaiei dagokienez, arrazoitu eta aldeztu egiten da proposatutako irtenbidea, alegia, eraikinari eustea. Era berean, hobekuntza argia ekarriko du albo bati datxekion erantsia eraistek.

Historia eta arkitektura ondarean izango diren eraginei dagokienez, kontsulta fasean, eraikinari eustearen eta albo bati datxekion erantsia eraistearen alde agertu dira organo eskudunak. Hala eta guztiz ere, aipatutako bi txosten horietan xedatzen dira eraikin barruan egin beharreko hobekuntza jardueretarako zenbait baldintza eta babes neurri egokiak. Txosten horietan, halaber, harresia kalte dezaketan jarduerak eragiten duten ardura erakusten da; eta gogorarazten da, aldaketa puntual honen izapidetzearen ondoren zernahi proiektuk harresian kalteak eragiten baditu, ez dagoela baimentzerik. Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuaren 16/47 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) web orrian kontsulta daitezke Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen

Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eta Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak egindako txostenak.

Kontzeju etxea zaharberritzeko eta hobetzeko lanei dagokienez, Ingurumen Agiri Estrategikoak prebentzio neurriak eta zuzentzaileak jasotzen ditu, lurrera hautsik bota ez dadin eta hondakinen kudeaketak eragin ditzakeenak arintzeko.

Natura 2000 Europako Ekologia Sareari egin ahal dakizkion kalteei dagokienez, esan behar aldaketa puntualaren eremua, gutxi gorabehera, Ebro ibaiko KBETik kilometro batera dagoela eta 500 metrora Kantabriako mendilerroko KBETik eta Arabako hegoaldeko mendilerroetako HBBETik. Gatzaga Buradongo Jauregi plazan dagoen eraikinari eustea helburu bakar duen aldaketa puntualaren ezaugarriak ikusita, ondorioztatzen da aldaketa horrek ez duela eragin esanguratsurik izango Natura 2000 Sarean.

#### 4. Ondorioak

Gatzaga Buradongo herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa puntualak, UE-2 Egikaritze Unitateari dagokionak, uste denez, ez du ingurumen eragin kaltegarri esanguratsurik sortuko, sustatzaileak ingurumenaren ebaluazio estrategiko erraztuko prozesu honen esparruan emandako dokumentazioan deskribatutako jarduketei jarraitzen badie eta sustatzaileak berak ingurumen txosten estrategikoan ezarritako neurriak hartzen badira.

Hiribilduko udaletxe zaharra edo kontzeju etxea zaharberritzeko jarduera zehatzak eta harresiari, zehatz-mehatz, edo kultura ondareari, oro har, eragin diezaiokeen zernahi jarduera direla eta, historia, arkitektura eta kultura ondarearen arloan eskumena duten administrazio organoei galdetu beharko zaie, bai eta organo horiek zehazten dituztenak bete ere.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ematea Gatzaga Buradongo herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa puntualari buruzko (Bastidako UE-2 egikaritze unitatea) ingurumen txosten estrategikoa.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betez, ingurumenaren txosten estrategikoak ingurumen erabakiaren ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 18a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*

**AMAIA BARREDO MARTIN**